

# B

BARREN

TOKIKOM

# *Trakatan trakatan...*





# ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!**



**ORDUTEGIA**

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutzarekin ordaintzeko erraztasunak

**5 EGUNEKO  
TEORIKAKO  
IKASTARO  
TRINKOAK**

**LEKUALDAKETA**

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

## LAGUNAK KOLTXOI DENDA-TEXTIL HOGAR

**BEHERAPENAK!**

**Sekulako aukerak. Etor zaitez eta bisita gaitzazu.**

%10etik %25era arteko beherapenak: koltxoi eta somierretan

% 25eko beherapena Kol eta Pikolin Nordiko-barrukoetan



**URTE BERRI ON!**



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



Wollpower

OLDSAN

terxy

Oihana  
Ore geriatzikok

KEYTON®  
Mesajedun besauekial





**Amaia Larrañaga**



**Jose Luis Azpillaga**



Batzuek gosaldu aurretik, beste batzuek gosaldu bitartean, halakok lanerako edo eskolarako bidean, besteak bazkalostean edo afalostean, bai paperean bai sarean, baina denak euren kuttunaren bila: kirola dela, gizarte arloa dela, ekonomia dela, kultura dela, iritziak direla... ni neu Lertxundiaren *Lekzioaren* eta Zakilixutek sortzen didan irribarrearen zain egunero. Zer esan ohikoez gain ematen dituzten aparteko arloez: dela mendia, dela informatika, dela osasuna... eta ostiraletako *Hitza*, larunbatetako *Mantangorri* eta domeketako *Igandea*.

Hau dena ematen digu *Berria* egunkariak, eta zuetako baten batek pentsatuko du, hori edo antzerakoa, beste egunkari batzuek ere ematen dutela, eta hala da, baina *Berriak* hau guztia euskaraz ematen digu eta horretxek egiten du berezi, izan ere *Berria* da euskaldunok gure hizkuntzan informazioa izan dezagun egunkari bakarra, eta horrek, ni behintzat, majo betetzen nau, baina, aldi berean, goibeldu ere egiten nau, zeren eta oraintsu abian jarri duten kanpaina batean adierazi baitigitue, la-

**“Berria da euskaldunok gure hizkuntzan informazioa izan dezagun egunkari bakarra”**

guntza premian daudela, ziztada behar dutela, berez, nire ustez, bereziki zaindua eta lagundua beharko lukeen arren, batez ere, administrazioaren aldetik, gainera, ahaztu gabe, aurrez jasandako keria guztiak.

Gure ziztada behar dutenez, irakurle, emaiozu zeuk ere ziztadatxoa, bai diru-ekarpenen bat eginda, bai egunkaria erositara, eta irakurrita zeuk jasoko duzun ziztada gozoak euskara-sendatze bidean jarriko zaitu.

Zer diok Jose Luis?

Ba, ni, gosaldu ondoren, lanerako bidean, trenean hasten naiz *Berria* irakurtzen. Lertxundiaren *lekzioari*, zuk diozun moduan, ematen diot lehen begiratu edota atzeko orrialdeko *Maratila*-ko lagunaren artikulua gatz eta piperdunei. Horiek ateratzen didate, maiz, eguneko lehenengo irribarrea, eta euskaltegiko eskoletarako materiala eman ere bai, batzuetan.

Horregatik, niri ere kezka piztu zitzaidan *Berriakoek*, egunkaria kinkan zegoela-eta, batzarrerako deia egin zutenean azaroaren bukaera aldera. Itxura denez, egoera larria da: gero era gutxiago saltzen da paperezko edizioa. Joera orokorra omen da, berripaper guztiei gertatzen ari zaie; izan ere, gaur egun gero eta irakurle gehiagok Internet bidez irakurtzen dituzte egunkariak. *Berriak* ere badu edizio digitala: [www.berria.info](http://www.berria.info), gero eta bisitari gehiagorekin gainera. Horrez gain, ordea, krisia dela-eta, publizitate-sarrerak gutxitu egin omen dira nabarmen: %30 azken urteotan. Egoerari aurre egiteko, sareko eskaintza zabalduta eta sendotzekotan dabilta. Horregatik guztiagatik gure sostengua eta bultzada, gure “ziztada”, behar omen dute.

**“Euskal Herrian euskaraz bizi nahi badugu, hedabide euskaldunak behar ditugu”**

Askok bezala, nik ere uste dut, Euskal Herrian euskaraz bizi nahi badugu, hedabide euskaldunak behar ditugula: telebista, irratia, egunkaria... Horregatik eta *Berria* gustuko dudalako, *Berrialagun* egin naiz, eta, Amaiak bezala, nik ere animatu nahi zaitut, irakurle, euskaraz dugun egunkari bakarrari zeure “ziztadatxoa” ematera.

Ruperren kanta dabilkit buruan: *Zaindu maite duzun hori...*

**Jarri ezazu zure publizitatea**

**B**

**BARREN**  
**astekarian**  
**943 743 704**



# Behin batean... Gabonak

## 2011 IDAZLEHIAKETA



*Behin batean...Gabonak lehiaketa antolatu dugu aurten ere. Tamalez baina, azken edizioa izan da aurtengoa. Urtez-urte, gero eta arrakasta gutxiago dauka lehiaketak, eta hori gutxi balitz, diru-murrizketen berri izateak, erabaki hori hartzera eraman gaitu. Aurtengo lanei erreparatuta epaimahaikideek egindako balorazioak ez du kontrako ahalegirik egiteko gogo askorik pizten. Izan ere, literatura, originaltasun eta irudimen gutxi topatu dute epaileek, gehiengoaren lanetan. Alabaina, urtero-urtero gogoz eta ilusioz beraien lana aurkeztu duten partehartzaileak zoriondu nahi ditugu, batzuen gogo-faltaren aurrean, besteen ahalegin eta irudimena beti nabarmendu izan delako horrelakoetan.*

ATXUTXIAMAIIKA

### PARTE-HARTZE DATUAK

- Olentzero eta Mari Domingiri buruzko marrazkia: 110
- Olentzero eta Mari Domingiri eskutitza: 103
- Idazlana: "Elgoibar da nire herria": 111

### EPAIMAHAIKIDEAK

- Iñigo Otaño eta Jon Eugi

ANTOLATZAIELA:



BABESLEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia





## UNAX ZULAIKA LH 1-2

► Marrazten lehenengo saria irabazi duzu. Zer sentitu zenuen irabazlea zinela jakindakoan?

Pozik ipini nintzen.

► Lehenago irabazi duzu horrelakorik? Espero zenuen zuk irabaztea?

Ez. Pixka bat espero nuen.

► Asko gustatzen zaizu marraztea?

Ez. Baina gaixorik nengoen etxean, eta marrazkia egin nuen, eta orduan amak eraman zuen ikastolara, entregatzeko.

► Eta zergatik egin zenuen zehazki marrazki hori?

Olentzero eta Mari Domingi agertzen dira mendi batean. Mendi hori edozein mendi da, nik asmatutako bat. Eta perretxikoak egin nituen, nik perretxiko bila joan nahi nuelako, baina euria ari zuenez ez ginelako joan.

► Eta marraztea gustatzen ez bazaizu, zer egitea gustatzen zaizu zuri, Unax?

Hondartzara joatea.

► Eta Gabonetatik, zer da gehien gustatzen zaizuna?

Opariak.

1. saria: Unax Zulaika
2. saria: Aritz Vallejo



OLENTZERO  
ETA MARI  
DOMINGIRI  
BURUZKO  
MARRAZKIA





## KEPA ANDONEGI LH 3-4

► Olentzero eta Mari Domingiri gutuna idazten, lehen saria irabazi duzu. Zer sentitu zenuen irabazlea zinela jakindakoan?

Pozik jarri nintzen baina pixka bat lotsa ere ematen dit.

► Lehengo irabazi duzu horrelakorik? Ez.

► Urtero idazten diezu gutuna olentzero eta mari domingiri?

Bai. Etxeko denen gutuna idazten dut nik. Amatzoren, aitatxoren eta Antonen opariak ere nik eskatzen dizkiet Olentzerori eta Mari Domingiri.

► Marteko Lok izango bazina moduan idatzi duzu gutuna. Marten martzianoak bizi direla uste duzu?

Ez. Brometakoak dira. Ipuinetakoak.

► Eta nolakoak imajinatzen dituzu martzianoak? Ez dakit. Ba gure antzerakoak.

► Futboleko baloiak eskatzen dizkie Lokek gutunean. Zuri ere gustatzen al zaizu futboleko jokatzeari?

Bai.

## OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRI GUTUNA

**K**aixo Olentzero eta Mari Domingi:

**Lik eta Lok gara eta Marte planetatik idazten dizuegu. Ni Lok naiz eta 10 urte ditut eta nire arreba Likek 8 urte ditu.**

**Iaz gurasoekin espazio-ontzian unibertsoetik bidaiatzen geundela Euskal Herria ikusi genuen urruti-urrutitik eta bertan zuek zeundeten neska mutilen eskutitzak hartzen, gauean beraiek eskatutako opariak banatzeko.**

**Guk Marten ez dugu Olentzerorik ez Mari Domingirik ezta Gabonik ere ez, pena bat da! Horregaitik aurten zuzenean zuei bidaltzen dizuegu eskutitza.**

**Likek: ipuin bat eta bizikleta bat.**

**Lokek: Bizikleta bat eta ipuin bat.**

**Etterako hiru kalefazio (Marten demaseko hotza egiten duelako) eta telebista haundi bat (ez ahaztu entxufeak ekartzen). Eta azkenik gauza garrantzitsuena: MILAKA BALOI, futboleko gol bat sartzen dugunean Unibertsoan galtzen zaigulako (baloirik gabe gaude).**

**Urtean zehar oso ondo portatu gara eta horregaitik opari hauek merezi ditugula uste dugu.**

**24 gauean gure etxera heltzeko arazorik ez izateko planoak egingo dizuegu.**

**Besarkada bat  
Lok. Lik.**

**\*Jatorrizko eskutitzak plano bat zekarren.**



1. saria: Kepa Andonegi
2. saria: Nayely Mendoza





## ENEKO LARRUSKAIN LH 5-6

▶ Lehen saria irabazi duzu. Zer sentitu zenuen irabazlea zinela jakindakoan? Espero zenuen irabaztea?

Ba poztu egin nintzen, baina, sustoa ere hartu nuen, eta asko emozionatu nintzen. Baina ez nuen espero. Jende askok idatzi zuen ipuina, eta besteenak ere poltatzak ziren.

▶ Lehenago irabazi duzu horrelakorik?

Bai, behin, liburutegian marrazki bat egin nuenean, baina orduan BARREn ez zidaten elkarrizketarik egin.

▶ Gustatzen zaizu ipuinak eta antzerakoak idaztea?

Bai. Irakurri eta idaztea gustatzen zait.

▶ Finlandiako kontuak ekarri dizkiguzu zure ipuinarekin. Finlandian egona zara inoiz, ala? Ez, baina Interneten irakurri nuen Bizarzuri Finlandian bizi zela, eta orduan pentsatu nuen Olentzero Finlandiara joan zitekeela, Bizarzurik dakiena ikastera.

▶ Eta bidaiatzea gustatzen zaizu? Joango zinateke Finlandiara.

Bai, joango nintzateke, hango hizkuntza jakinez gero.

▶ "Elgoibar nire herria da" zen ipuina idazteko gaia. Elgoibar zure herria izanda, zer falta zaio Elgoibari zure ustez? Eta zer dauka soberan?

Ez dakit, niri Elgoibar dagoen moduan ere, gustatzen zait.

▶ Badaukazu esateko besterik?

Ba nire ipuina jendeari gustatzea espero dudala, eta zorionak eta urte berri on.

**K**aixo elgoibartarrok,

## ELGOIBAR NIRE HERRIA DA

**Txiki txikitatik bidaiatzen ibili naiz leku batera eta bestera. Derrigorrezko ikasketak Europako ipar aldean egin nituen, Finlandiako Rovaniemi herrian. Bertan, gorriz jantzita zebilen, ile luze eta bizar zuriko gizon batekin bizi izan nintzen. Udaberrian, herriko Samien familiekin eta beren elur oreinekin belar asko zegoen lekuetara joaten ginen. Inguru horietan zuhaitzak ere egoten ziren eta hauen adarrak erabiliz bizar zuridunak umeentzako jostailuak egiten zituen. NiK, nire eguneroko lanak bukatu ondoren, bere ondora joan eta jostailuekin laguntzen nion, horrela poliki-poliki trebatzen joan nintzen eta gaur egun lan dotoreak egiten ditut, nire ustez behintzat. Udazkenara arte jarduten genuen lan horretan, orduan hainbat gurdi bete eta Sami eta elur oreinen laguntzaz Rovaniemi herrira itzultzen ginen. Abendura arte jostailuak paketeetan sartzen pasatzen genuen eta abenduaren 24ko gauean, denak banatzen zituen herrikoen artean. Lan galanta egiten zuen gau horretan, izugarritzko abiadurarekin egin behar izaten zuen banaketa, etxe guztietako teilatura igo eta tximiniatik behera jaitsi ondoren opariak uzten zituen ondo apainduta zegoen zuhaitzaren azpian. Gezurra zirudien, hain zaharra izan eta etxeetako tailatura igotzeko zuen trebetasuna. Hainbat urte pasa ondoren berak erabiltzen zituen trikimailuak ikasi nituen. Gaur egun nik ere erabiltzen ditut eta oso ondo moldatzen naiz.**

**Nire ikasketak bukatzera zihoazenean, galdera bat egitera ausartu nintzen: Zergatik pasatzen duzu urte erdia jostailuak egiten eta gero, denak, egun berean oparitu? Zergatik ez dituzu saltzen? Bere erantzunak txundituta utzi ninduen: umeen aurpegiak pozez zorutzen ikusteak bihotza alaitu egiten dit, eta hori ezin da diruarekin ordaindu.**

**Derrigorrezko ikasketak bukatu ondoren Europako hainbat herritan ibili nintzen nire ikasketak hobetzeko asmoarekin. Horrela hainbat urte pasatu nituen. Azkenean Euskal Herrira bueltatzea erabaki nuen, Elgoibarrera hain zuzen.**

**Hemen, basoan lasai bizi ahal izateko ikazkin lanetan hasi nintzen. Udaberrian hasten naiz egurra biltzen, egokia eta itxurosoa dena jostailuak egiteko eta balio ez duen egurra ikatza egiteko da.**

**Herri desberdinetan egon naiz, baina bizi izateko Karakate inguruko mendiak bezalakorik ez dago, garbi dut Elgoibar nire herria dela.**

**Olentzero. Laster pasatuko naiz zure etxeetatik bisita egitera.**

1. saria: Eneko Larruskain
2. saria: Irene Makazaga

# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARRE**Nek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA**, **ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako erantzukizunik.

COORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil  
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia  
PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz  
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue  
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaiz Irueta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga  
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale  
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




ELGOIBARKO UDALA



MENDAKO UDALA



AIRE AIRE IN



## ■ GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Zapatuan denok Bilbora

Aro politikoa berri bati ateak parez pare ireki dizkion urtea amaitu da. Konponbide demokratiko bat eraikitzeko oinarri sendoak jarri dira 2011n, duela hilabete eta urte batzuk pentsaezinak ziren irudi eta aukerak ahalbidetuz. Honek berebiziko ilusioa eta itxaropena piztu du euskal jendartearengan, eta gehien-go zabal batek agertoki berri hau finkatu eta betikotzeko pausu eta erabaki ausartak eskatzen ditu. Horien artean, eta lehentasun gisa markatuta gainera, euskal preso politikoen eskubideak behingoz errespetatuak izatea.

Eskakizun honen adierazle nagusia datoren urtarrilaren 7an Bilbon burutuko den Herri Mobilizazio Orokorra izango da. Azken asteetan, herriz herri hainbat ekimen antolatu dira presoen eskubideen alde: Herri Bilguneen sorkuntza, mobilizazioak, hitzaldiak, barraualdiak, kontzertuak, erakusketak, argazki erraldioak, bideo grabaketak... Guztiak parte hartze eta babes handiarekin. Hortaz, ziur gaude lan honek guztiak bere isla izango duela datorren larunbatean Bilbon egingo den Herri Mobilizazio Kolosal horretan.

Aurrera begira jartzeko unea da, konponbide demokratiko eta justu bat eraiki behar dugu, guztion parte hartzearekin eta guztiok garaile sentituko garen eszenatokia sortuz. Horretarako, ezinbestekoa da euskal preso politikoen eskubideen auzia konpontzea, muturreko egoerak altxatuz lehenik, eta ondoren, gatazkaren ondorio guztiak gainditzeko urratsak emanez, preso eta iheslari guztiak etxera itzuliz.

Bide horretan, ezinbesteko hitzordua dugu. Mugarria izan nahi duen Herri Mobilizazio Orokorra. Denok dugu lekua, autobus kopurua bikoizten ari gara, eta herrietan elkartasun olatu ikaragarria sortzen ari da. Bilbora joateko zalantzan direnak konbentzitu ditzagun. Urtarrilaren 7an, arratsaldeko 17:30ean denok egon behar dugu La Casillan. Kaleak bete behar ditugu kartzelak hustutzeko!

Kolosala izango da! Autobusa, 15:30ean Plaza Handian. Animatu eta denok Bilbora!!!!!!

**Egin dezagun bidea** ☺

### Eskerrik asko

*Horra, horra, gure Olentzero... Mari Domingi, begira horri...*

Kantuan hasi genduan eguna. Dotore jantzita goitik eta behera, eurixari eta hotzari kasurik ere egitteke. Beste urte batez, arrakasta goizeko dianiak. Baiña ez giñan gu eguneko protagonistak. Ordurako bateronbaterik ikusi zaban Elgoibar inguruetan Olentzero eta Mari Domingiren traktoria. Dana prest zagu. Beste urte batez, dantzan, kantuan, irribarria ahuan eman genien ongi etorrixa, eta eurak eskertu gero, arbolapian, euren modura.

Egun eder haura pasauta, Olentzerori eta Mari Domingiri ez ezik, eskerrak eman bihar beste askori. Urtetik urtera, alkarri lagunduz, parte hartuz, giro gero eta hobia topatzen dabelako herrixan erregalo banatzaille bixek. Ume txixixen kantua, trikitixa doiñua, aitta eta ama gaztien abarka-pausua, txapela, buruko zapixa, kartia, txorizo muturra eta talua, gaztaiña errien berua, herritarron arteko girua! Hori da, urtero-urtero, gure erregalua! Eta batzuek jarritako traben gaiñetik, eurixak ere trabarik eitten ez digunez, holaxen jarraituko dogu. Badakigulako Olentzero eta Mari Domingi erregalo emaille bi baiño askoz gehiago dirala, eta egun hori antolatzen jarduten dogunontzako, egunan bukaerako satisfaziua arbolapeko edozein erregaloren parekua dala.

Eskerrik asko Olentzeroren eta Mari Domingiren lagun danoi. Zuei esker topatu da, aurtan ere, Elgoibarrerako bidia.

Gaiztakeri eta gaiztakeri artian, formalak izan eta pozik bizi!

**Atxutxiamaika** ☺



# Eguberriei errepassoa...

## Eguberriak, begiratu batean

Jai eta poz egunak izaten dira askorentzat pasa berri ditugunak. Lagunekin eta etxeokoin egoteko ez ezik, kalean kantuan edo dantzan aritzeko egunak. Egon da zer eginik egunotan, Elgoibar eta Mendaroko kaleetan. Olentzero eta Mari Domingiren bisitak eta Elgoibarko Gabon Zahar feriak girotu ditu kaleak, baina egon da bestelakoetarako astirik ere. Musika Eskolak urteroko kontzertua eskaini zuen, txikienek izotz pistan gozatzeko aukera izan dute, eta etxeko txikiak ez ezik, handiagoek ere, makina bat bisita egingo zioten Jaiotza Mekanikoari ere. Denak ere, gogoratze-ko egunak izaten dira; argazkitan gordetzeko modukoak. **Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: [www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)**



*Abtxiamaikako hezitzaileek urteroko argazkia atera zuten Olentzero eta Mari Domingirekin.*





# Eguberriei errepasoa...



*Julen Zabaletak jarri zuen marxan jaiotza mekanikoa.*



*Mendaron*





are irtsi ziten Olenzero eta Mari Domingi



Mendaro



# Eguberriei errepassoa...

Kale kantariak girotu zuten Gabon Zahar feria.



Mausitxak irabazi zuen urteko gazta onenaren txapelketa.



Txillarre baserriak jaso zuen barazki postu onenaren saria.





Ziarda, Mafukorta eta Meabe bertsotan.



Presoen aldeko giza katea egin zuten zuten feria egunean.



Ikastolaren 50. urteurreneko ospakizunak hasi ziren abenduaren 31n.



Eliza bete jende bildu zuen musika eskolaren kontzertuak.





# Kirol Sariak 2011.....

Palan lortutako emaitzengatik sari pilotela elkartean Eulogio Mancebo



Judoa laga eta 10 urtera txapelketetara itzuli delako saritu zuten Gorka Garate (eskuman).



20 urte daramatza Juan Manuel Dobarrok xake elkartearen lanean eta jokatzeko (eskuman).



Karateari eskaini dion laguntzengatik jaso zuen saria Joan Adolfo Dobarrok (eskuman).



Areto futbolean Aitor Elizburu saritu zuten, klubeko lehen jokalaria izateagatik. Bere ilobak jaso zuen saria.



Igeriketa taldeak Marian saria, zuzendaritzan egindako lanagatik.



Marga Zapata saritu zuen Txusko moto klubak, taldearen sorreratik eskainitako lanagatik.



Pilar de la Lama, Antonio Fernandez eta Julian Garcia saritu zituzten Kirol Patronatuak, atletismoan eredu direlako.



Angel Mar zion saria La dular...



Wing Tsun taldeak Fran Burgos (eskuman) saritu zuen 2011n egindako lanagatik.



Kirol Patronatuak Aitor Zabala kazetarari eman zion saria, kirol albisteei 22 urteotan emandako garrantziagatik.



Sariak banatu aurretik, Kirol mahaingurua egiten...



zuen Lagunak  
(eskuman).



olari eman zion  
ko lanagatik.



sobiagari (ezkerrean) eman  
n Taldeak, urteetan birrin-  
ren alde eginiko lanagatik.



balioen inguruko  
zuten.



40-15 tenis elkarteak  
Ander Oñederra  
sartu zuen, tenisa  
sustatzen eginiko  
lanagatik. Jabi  
Guallarrek (eskuman)  
jaso zuen saria.



Jose Mari Arruabarrena  
(eskuman) sartu zuen CD  
Elgoibarrek, klubari eskaini  
dion lanagatik.



Sartu guztiek familia erretratua atera zuten.



Mintxeta Atletismo  
taldeak Andrea  
Arrieta sartu zuen,  
lortutako emai-  
tzengatik.



Gipuzkoako eta Euskadiko ehiza txapelketak irabazteagatik  
eman dio La Union elkarteak saria Arkaitz Egañari.



Arkaitz Iureta (eskuman) sartu zuen Morkaikok,  
mendian erakusten dituen baloreengatik.



Pneumax enpresa sartu  
zuen Sanlo eskubalo  
taldeak, 15 urteotan  
emandako launtzengatik.

**LANA**

**ESKAERA**

- Emakumea lanerako prest. Nagusiak zaintzen edo garbiketak egiten egingo nuke lan. ☎ **695 303 237**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak zaintzen edo garbiketak egiten egingo nuke lan. ☎ **650 152 866**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak zaintzen edo garbiketak egiten egingo nuke lan. ☎ **636 581 194**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak zaintzen edo garbiketak egiten egingo nuke lan. ☎ **686 578 228**
- Mutila edozein lan egiteko prest. ☎ **664 029 948**
- Lana behar dut: Nagusiak zaintzen, garbiketetan, zerbitzari lanetan... Edozein lan hartuko nuke. ☎ **647 175 093**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketeta lanak egiteko prest. ☎ **626 914 904**
- Ingleseko klaseak ematen dira. Eskolako laguntza eta titulazio ofizialak lortzeko klaseak. Adin guztiak. ☎ **652 763 264**

- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketeta lanak egiteko prest. Orduka edo interna. ☎ **638 338 816**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketeta lanak egiteko prest. Orduka edo interna. Paperak ditut. ☎ **669 311 385 / 626 263 251**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketeta lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **690 925 929**
- LH, DBH eta Batxilergoko klaseak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **696 295 098**
- Emakumea lan bila. ☎ **686 578 228**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest, etxean edo ospitalean. Orduka edo interna. ☎ **645 557 191**
- Emakumea lanerako prest, orduka edo interna. ☎ **608 474 923**
- Emakumea lanerako prest. Orduka. Mantenu lanak, nagusiak zaintzen, zerbitzari... ☎ **609 148 861**
- Gizonezkoa zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **692 332 871**

**ESKAIINTZA**

- Zerbitzaria behar da jai egunetarako. Orduka. ☎ **943 530 465**
- Sukalderako langilea behar da, jardunaldi erdirako. ☎ **943 530 465**

**ETXEBIZITZAK**

**ALOKAIRUA**

- Hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **636 581 194**

**GARAJEAK**

- Garaje itxia alokagai San Roke 10ean. Hilean 75 euro. ☎ **699 409 697**

**BESTELAKOAK**

- Urasandiko La Union elkarteko bazkide plaza salgai. ☎ **659 773 681**

**OHARRA**

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta)  
 Autoak saltzea: **15€**  
 Bestelakoak: **8€**  
 Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK**  
 Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta)  
 Autoak saltzea: **12€**  
 Bestelakoak: **6€**  
 Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.

ESKERTZA

**MARIBEL ARRIOLA ZUBIAURRE**



*Ama maittia; oraindik ezin dugu sinistu gure ondotik joan zarenik, baina zeruan argi bat piztu da zure borondatez, apaltasunez eta maitasunez bete.*

*Beti izango dugu zure argiaren indarra eta goxotasuna. Inoiz ez zaitugu ahaztuko. Eskerrik asko, muxuak eta hurrengora arte.*



*2011ko abenduaren 29an hil zen, 76 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





• Zorionak, **Klara!** 4 urte handi bete dituzu! Muxu handi bat familiakoen eta, bereziki, Telmo eta lanen partez.



• Zorionak, **Garesl!** 5 muxu potolo eta Karolina eder bat zuretzat!



• Zorionak, **Mikel,** zure bigarren urtebetetzean. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Ana Delia,** abenduaren 23an 9 urte egin zenituelako. Oso ondo pasatu genuen. Amatzoren partez.



• Zorionak, **Maialen,** hilaren 2an 3 urte egin dituzulako. Patxo potolo asko gure sorgintxoari. Familiako guztien partez.



• Bejondeizula! Bildots umezurtzarekiko zure erruki eta gizatasunak zinez hunkitu gintuen.



• Zorionak, **Ainhoa!** Zuzara gure opari politena. Muxu bat zure seigarren urtebetetzean. Etxekoen, eta, bereziki, Nerearen partez.



• Zorionak, **Felisa eta Flora,** 94 urte egingo dituzuelako. Ondo pasa! Lagunen partez.

## OHARRA

### AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU

Erretratu bakarreko agurra: 4€.  
Argazki bikoitza: 6€.  
Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

### BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3 €.  
Argazki bikoitza: 5€.  
Hirukoitza: 7€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.



## MEKANOSA

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



**CORDON  
VILARCHAO**

### DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura  
Zolak eratzia  
Lantekua: eguztarrak, PVC  
Pintura orokorra



San Roke, 7 behea  
Pol. Glaso - Glasgo kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak  
Tel. 943 749 670

## 5 eguena

### Gabonak

17:30 Jaiotza biziduna  
San Bartolome parrokia  
aurrean, Elgoibarko katekistek  
antolatuta.

### Gabonak

18:00 Erregeen kabalgata  
Santa Klara auzoan hasita,  
Plaza Handira iritsiko dira.

### Gabonak

18:30 Erregeen kabalgata  
Billaletik hasita, Mendaron.  
Ondoren, Goñati pilotalekuan  
ongi-etorria egingo diete  
erregeei.

### Kirolak

22:00 San Anton pilota  
txapelketa  
Finalerdiak jokatuko dituzte  
Ikastolako frontoian. Lagunak  
taldeak eta Kirol Patronatuak  
antolatuta.

## 6 barixakua

### Meza

11:30 Kristau ikasbidekoen  
meza  
Errege Magoak ere izango dira  
meza horretan. San Bartolome  
parrokian.

### Musika

12:30 Udal Musika Bandaren  
kontzertua  
Herriko Antzokian.

## 7 zapatua

### Irteera

9:30 Arantzazura familia irteera  
Gaztelekuak, Ludotekak eta  
Atxutxiamaiak antolatuta.

## 8 domeka

### Irteera

10:00 Lasergunera irteera  
Gaztelekuak antolatuta.

## 10 martitzena

### Hitzaldia

19:30 'Gazteak ekinean'  
Gazte Informazio Zerbitzuak  
antolatuta, Kultur Etxeko  
hitzaldi gelan.

## ADINEKOEI OMENALDIA (San Lazaro egoitzan)

### 5 EGUENA

11:45 Meza  
17:00 Bingo jolasa  
19:00 Errege Magoen bisita

### 6 BARIXAKUA

10:15 Udal Musika Bandaren musika  
saioa  
11:30 Parrokiako koroaren kantaldia  
17:30 'Duo Plaentxi' bikotearen  
ikuskitzuna

### 8 DOMEKA

17:30 Argia taldearen bisita

### OKINDEGIAK

6 barixakua **FOTERO**

8 domeka **IBARRENEA**



### ZINEA

#### «Amanecer»

6, barixakua: 22:15  
7, zapatua: 19:00/22:15  
8, domeka: 19:00  
9, astelehena: 21:30



Filma: Crepúsculo, Amanecer 1. atala.  
EEBB, 2011. Zuzendaria: Bill Condon.  
Iraupena: 117 minutu. Aktoreak: Kris-  
ten Stewart, Robert Pattinson, Taylor  
Lautner, Dakota Fanning, Michael  
Sheen, Maggie Grace, Ashley Greene,  
Nikki Reed, Jackson Rathbone.

Crepusculo film bildumaren hasiera da,  
eta orain arteko filmetako skretuak argi-  
tuko ditu Amanecer pelikulak. Bella  
Swan eta Edward Cullen ezkondu egin-  
go dira eta euren ezkontza eguneko ga-  
tazkak gainditu beharko dituzte, senide-  
ekin batera. Era berean, eztei bidaia eta  
euren alabaren jaiotza ere konplikatu  
gingo dira. Horrek guztiak Jacob  
Black.-entzat espero ez dituen ondorio-  
ak ekarriko ditu.





# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea  
☎/Faxa: 943 74 31 16  
[www.biena.es](http://www.biena.es)  
[info@biena.es](mailto:info@biena.es)

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabillioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea  
Xixillon 2-2. pabillioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
[www.flodoso.euskalnet.net](http://www.flodoso.euskalnet.net)

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 25 45 22

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxa: 943 53 18 25

### Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkalko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
Mendaro  
☎ 659 934 964



## Pinturak

### Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea  
☎ 943 74 88 43  
☎ 660 52 25 87



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



# Gremioen GIDA



# emugi!

elgoibarko  
mugikortasun  
iraunkorra



## EMUGI. Ibilgailuak zentzuz erabiltzea

**GAUR EGUN 19 BAZKIDEK PARTEKATZEN DITUGU EMUGI*K* ESKAINTZEN DIZKIGUN BALIABIDEAK. EGIN ZAITEZ BAZKIDE, ETA ZURE BEHARREN ARABERA ERRESERBA ESAZU. ANIMA ZAITEZ!**



**M. AXUN LARRAÑAGA**  
MEKA Lanbide Eskolako Zuzendaria

*“Ekimen interesgarria, berritzailea eta etorkizun handikoa iruditu zitzadan hasieratik Elgoibarko Udalak bultzaturiko EMUGI proiektua. Bazkide izatearekin, eta kotxe elektrikoak alokairuan erabiltzearekin, MEKA Lanbide Eskolak aurrezteaz aparte, iraunkortasunari laguntzen diolakoan gaude.”*



**ALFREDO ETXEBERRIA**  
Elgoibarko Alkatea

*“Partekatzea, aurreztea eta ingurumenarekiko jarrera arduratsua izatea dira EMUGI proiektuak Udalari eskaintzen dizkion onuretako batzuk.”*



**PREZIOA: 0,20€ 5 minutuko**  
**BAZKIDEENTZAKO URTEKO KUOTA: 50€**



**PREZIOA: 0,20€ 15 minutuko**  
**BAZKIDEENTZAKO URTEKO KUOTA: 25€**